Irungo euskarazko hamabostekaria

# Irunero 419

Apirilak 15, 2022

## 22. Korrikaren lekukoak eskuz esku Irungo kaleak zeharkatu ditu

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Korrika Txikia eta Gaztea
5 22. Korrika
6 Eguzkitzako odol emate kanpaina
7 Chispa de la vida
8 Kirolak: Ricardo Gomez Txapelketa
9 Kirolak: Jaizubia Hipika
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Aste Santua Gaztelekuan
14 iGazte
15 Agenda

- Caser Cuidados
- Etxez etxeko languntza
- Osasun arreta (Fisioterapia, Erizaintza, Psikologia, Podologia, etc.)
- Teleasistentzia 24h
- Akonpainamenduak

Edozein egoera, iraupen, adin eta lekutan laguntzarako behar duzun arreta.

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko apirilaren 23an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte albiste ziren gertaerak biltzen ditu. "Cuaresma futbolística" izeneko artikuluan azken futbol partidetako emaitzak errepasatzen dira. Yolek, berriz, poema erromantikoen atalean "En el faro" olerkia argitaratu du. Jarraian, Gipuzkoako hainbat alkatek Donostian izandako bileran pasaporteak bertan behera uzteko beharraz mintzatu direla kontatzen da, aduanetako arazoak konpondu ahal izateko. Titok idatzitako testuan, hiriko gazteen ezkongabetasunaren zergatiaz galdetzen dio bere buruari.

Bigarren orrialdean, hiru zutabe betetzen dituen kirol kronika zabalean hiriko kirol taldeen emaitzak errepasatzen dira. Real Unionek Pariseko nazioarteko txapelketa irabazi du, Olympique eta Red Star taldeak garaituz. Amuten, berriz, Real Unionen bigarren taldea garaile izan da. "Amor de infancia" atalaren ostean, "Por decir algo" titulua duen testuan aduanako langileen arazoak aipatzen dira, baina horrekin batera aipatzen da, halaber, ikuskariaren bileran akordio batera iristeko aurrerapausoak eman direla. Gainera, atal berean jakinarazten da kirol zelai berriaren eraikuntzan aurrerapauso gutxi eman direla. Azkenik, hiriko jaiak iristeko bi hilabete eskas falta direla gogorarazten da, Sustapen Batzordea hiriko festak sustatzen hasi dadin. Bigarren orrialdearen amaieran Irungo tren geltokiko jatetxean geltokiburua agurtzeko egindako omenaldi ekitaldiaren laburpena irakur daiteke.

Aldizkariaren azken orrialdean, aldiz, "Notas Municipales" atalean azken udal bilkuran hartutako erabakiak jakinarazten zaizkie herritarrei. "Inoportunidad con agravantes" testuan, berriz, X kolaboratzaileak Irunen ogiaren prezioa jaisteko egindako eskariari erantzuten diote Y. eta Z. kazetariek. "De todo un poco" berri laburren atalean aldiz, agerian uzten da Guardia Zibileko agenteak alojamendurik gabe gelditu direla eta, bestetik, linea elektrikoa zeinen egoera txarrean dagoen. Aldizkaria "Noticias" atalarekin amaitzen da, publizitatez beteriko laugarren orrialdearen aurretik.

**Argazkiak:**
**48907:** Guardia gorputza eta poliziak Behobiako Aduana eraikin zaharraren aurrean.

**57684:** Colon pasealekua, bere zuhaitz-ilara bikoitzarekin, berrurbanizatu baino urte batzuk lehenago (eszena 1905a baino lehenagokoa da).

**38580:** Colon pasealekuko zubitik hartutako trenbide-hondartza. Ezkerrean, Aduanako biltegiak. Eskuinean, Iparraldeko Trenaren geltoki zaharra.

**IRUNERO**

**Erredakzioa eta maketazioa:**
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

**Administrazioa:**
Joseba Arozena

**Zuzenketa:**
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

**Publizitatea:**
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

**Diseinua eraberritzea:**
Andrea Gomez Arocena

**Inprenta:**
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

**Argitaratzailea:**
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943042052

**Webgunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

# Berdintasun eta LGTBI arloak hainbat lerro estrategiko zabalik dauzka

**Berdintasun ordezkaritzatik, arloan abian dituzten lan-ildoak eman ditu ezagutzera Miren Echeveste ordezkariak. Zehazki, une honetan Irungo Emakumeen Etxea diseinatzeko eta martxan jartzeko parte-hartze prozesuaren azken txanpan dago Udala. Bestetik, Berdintasun arloak LGTBI kolektiboarekin loturiko hainbat proiektu dauzka eskuartean.**

Miren Echeveste berdintasuneko ordezkariak adierazi duenez, martxan dauden egitasmoen bitartez arloaren zeharkako izaeran sakontzea bilatzen da, Udaleko gainerako departamentuekin batera lan eginez eta Irungo elkarteen sarearekin lotura estuak ezarriz. Garapen bidean dagoen proiektuetako bat Irungo Emakumeen Etxearen eraikuntza da, Covid-19aren pandemiak nabarmen markatutako prozesua, hain zuzen ere, eta, ondorioz, atzerapen handiak izan dituena. "Hala ere, prozesuak balio izan du Irungo elkarte feministak eta emakumeak elkarren artean kohesionatzeko, eta haien eta Udalaren arteko harremanak estutzeko", azaldu du Berdintasuneko ordezkariak. 2022. urtean, dena bide onetik badoa, Irungo Emakumeen Etxearen elkartea nola eratzen den eta lehen urratsak nola ematen dituen ikusiko da. Ekipamendu berria kokatuko den lokala egokitzeko lanak ikusteaz gain, Irun feminista bat eraikitzeko zerbitzuak eta erabilerak martxan egongo dira.

**V. Berdintasun plana**
Bestetik, Berdintasun arloa 2023-2027 aldirako V. Berdintasun Planaren prestaketan murgilduta dago, aurreko plan amaitu berritan. Plan horrek, batez ere, Ahalduntze Eskola eta berdintasun eta erantzunkidetasun tailerrak sendotzeko balio izan du, baita berdintasun alorreko teknikari espezifikoak egonkortzeko, eta indarkeria sexistaren alorrean arreta eta koordinaziorako erakundeen arteko protokoloa onartzeko eta sinatzeko ere. Gainera, azken urteetan planak hiriaren errealitateari buruzko informazio espezifikoa bildu du, askotariko diskriminazioei buruzko azterketei, indarkeria matxisten inguruko inkestei eta udal programa eta jardueretan sexuaren arabera bereizitako parte-hartzeari buruz duela gutxi eginiko azterlanari esker. Informazio hori guztia V. Berdintasun plana osatzeko oso baliagarria izango da. Helburua argia da: Irunen berdintasunaren eta feminismoaren defentsan eta sustapenean inplikatutako alde guztiekin ibilbide orri bera partekatzea", adierazi du Miren Echevestek.

Era berean, ordezkariak irragarri du Berdintasun zerbitzua jarduerez hornitzen jarraituko dela. Ekintza batzuk jada programan finkatuak daude, hala nola, Beldur Barik lehiaketa eta gala, festetako puntu morea, M8ko eta A25eko jardueren programak. Hala ere, egitasmo berriak ere abiatu dira, esaterako, Julia Iruretagoyena ikerketa beka, indarkeria matxistaren aurkako eta berdintasunaren aldeko sentsibilizazio kanpainak, edo unibertsitateen arteko topaketa .

**LGTBI esparrua**
LGTBI alorrean, aurten hiru data garrantzitsu izango dira. Alde batetik, maiatzaren 14an, eguraldiak laguntzen badu, Eurovision jaialdia antolatuko da lehiaketa horrek urteetan LGTBI kolektiboa ikusarazteko eta normalizatzearen alde egin duen lan handia erakusteko. Bigarrenik, ekainaren 28an, Harrotasunaren eta Aniztasunaren Nazioarteko Eguna baliatuz, hirian hainbat ekintza antolatuko dira. Ildo beretik, aurrekontu partizipatiboetan bozkatutako LGTBIfobiaren aurka egiteko ekintzak prestatuko dira. Azkenik, udazkenean, berriz ere aniztasun afektibo, sexual eta familiarraren programa eramango da Irungo ikastetxeetara, etorkizuneko belaunaldiak integratzaileagoak eta aniztasunarekiko errespetutsuagoak izan daitezen.

# Udalak klima eta energia jasangarriaren aldeko ekintza-plan berria dauka

**Borja Olazabal Garapen Jasangarriko ordezkariak Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Planaren azken emaitzaren berri eman du. Orain arte indarrean zegoen Irungo Energia Jasangarriaren Ekintza Plana berritzen du dokumentuak. Jasangarritasun Energetikoaren Mahaian aurkeztu dute jada plan berria.**

Aurreko planak Irunen berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko «arintze neurriak» biltzen zituen. Oraingoak ere bai (26 ekintza, hain zuzen ere) baina, horrez gain, «egokitze ekintzak» ere jasotzen ditu. Hamasei dira guztira, eta neurri horien bidez aurre egin nahi diegu klima-aldaketak jada eragin dituen inpaktuei (tenperatura igoerak, lehorteak, euriteak eta antzeko muturreko beste gertakari batzuk).

Arintze neurrien helburua 2030erako emisioak % 55 murriztea da, 2007ko datuarekin alderatuta, horixe baita Europako erakundeek ezarritako helburua. Gogoan izan behar da 2020rako helburua % 20ko murrizketa zela, eta hiriak atalase hori gainditu zuela aurreko planarekin (gaur egun, % 25,3 da murrizketa). Horrela, plan berriaren helburuak lau ildo estrategikoren arabera egituratu dira: efizientzia energetikoa, energia berriztagarriak, mugikortasuna, hondakinak. Ildo estrategiko horiek modu transbertsalean aplikatzen dira planaren jarduketa esparrua osatzen duten sektoreetan: zerbitzuak, etxea, garraioa eta hondakinak. Zerbitzuen sektorearen barruan, tratamendu berezia ematen zaio Udalaren esparruari (udal ekipamenduak, argiteria publikoa eta Udalaren ibilgailuak), eragiteko gaitasun handiagoa duelako, udalerriarentzako aurrezki ekonomikoa ekar dezakeelako eta, azkenik, eredugarri izateko aukera duelako.

Zehazkiago, honako ekimen hauek aurreikusten dira: energia kontsumoaren monitorizazioa eta teleneurketa udal ekipamendu guztietan, energia auditoriak egitea udal ekipamenduetan, udal eraikinen barruko argiztapen guztia LED bidez egitea, sistema termikoen bidez efizienteagoak diren beste batzuk jartzea, eskolara joateko ibilbide seguruen sarea sortzea edo etxeko sektorean energia komunitateak sortzea.

Egokitze ekintzei dagokienez, hamasei dira guztira, eta ekintza horien xedea da lehorteen, basoko suteen, uholdeen edo muturreko beroaren kontrako ondorioei aurre egitea. Honako hauek dira helburuak: ur gutxiago erabiltzea, eta Udalak baliabide horrekiko duen zaurgarritasuna murriztea; ingurune naturalean, klima aldaketaren balizko eraginen aurrean egokitzeko gaitasuna indartzea; ingurumen kulturaren alorrean, gure lurraldeko ingurumenaren eta erronka klimatikoen ezagutza eta errespetua sustatzea eta, azkenik, babes klimatiko soziala: herritarrak babestea osasuna eta/edo segurtasuna arriskuan jartzen duten klima egoeren aurrean, zuzeneko ekimenen bidez.

Zehazki, hauek dira aurreikusi diren ekintzak: ekipamendu publikoetan ura aurrezteko kanpaina egitea; hiriko saneamendua eta drainatzeak efizientziaz kudeatzea, ingurune hartzaileak gainezka ez egiteko, uholdeak saihesteko eta sarean ur parasitariorik ez sartzeko; lehen sektoreko tokiko produktuak eta 0 km-koak sustatzea; edo klima aldaketak habitatetan, floran eta faunak dituen eraginak ebaluatzea, mehatxatutako espezie eta habitatei arreta berezia eskainita, hobeto babesteko eta kudeatzeko.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

# Euskararen lekukoa haur eta gazteen eskuetatik pasa da Irunen

**Euskararen lekukoa haur eta gazteen eskuetara iritsi da Irunen. Korrika ofiziala apirilaren 9tik 10erako gauean Irundik igaro bazen ere, haur eta gazteek euskararen karabanara batzeko aukera aprobetxatu nahi izan dute. Apirilaren 7an Irungo Lehen Hezkuntzako ikasleak hiriko kaleetara atera ziren. Hurrengo egunean, berriz, gazteen txanda izan zen.**

Txikienak izan dira Irunen Korrika giroa zabaltzen lehenak. Goizeko 10:00etan ibilbidea San Vicente ikastetxean hasi zuten eta Irungo erdialdetik lekukoa eraman ostean, Zabaltza plazan bukatu dute ibilbidea. Ekintzak, ordea, ez ziren emanaldiarekin amaitu. Izan ere, Zabaltza plazan Korrikaren etorrera ospatzeko ekitaldi berezia ospatu zuten. 22. Korrikaren abestiaren abeslarietako bat Ane Garcia hondarribitarra dela aprobetxatuz, ekitaldiaren itxierara gonbidatu zuten haurrek berarekin batera abesteko aukera izan zezaten. Gazteak Korrikarekin bat

Gazteek eskualdeko haurrei lekukoa hartu zieten hurrengo egunean. Izan ere, hurrengo ekintza ere apirilaren 9an 10:00etan hasi zen. Kasu honetan, ibilbidea Mendeluko biribilgunean hasi eta, aurreko egunean haurrek egin bezala, Zabaltza plazaraino esku batetik bestera eraman dute lekukoa, euskara sustatzeko nahiarekin batera. Oraingoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleekin.

Azpimarratzekoa da Irungo Korrika Gaztea Eusliderrak proiektuan parte hartu duten ikasleek antolatu dutela. Izan ere, egun Irungo AEK hainbat eskolatako DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleekin Eusliderrak proiektua zuzentzeaz arduratzen da. Eusliderrak proiektuan ikasleek hizkuntzen hausnarketa egiteaz gain, ikasleei proiektu bat zerotik sortu eta kudeatzeko aukera ematen zaie. Kasu honetan, Korrika Irundik gauez igarotzekoa zela jakinda, hiriko gazteei Korrikan parte hartzeko beste aukera bat eskaintzeko Korrika Gaztea antolatzea erabaki zuten ikasleek.

Irungo Korrika Gaztearen antolaketan Toki Alai, Eguzkitza, Hirubide eta San Vicente de Paul ikastetxeetako DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleek parte hartu dute. Behin ibilbidea amaituta, festak Zabaltza plazan jarraitu zuen. Ekitaldia aurkeztu, manifestua irakurri eta Irungo Korrika Gaztean parte hartu zuten ikasleek diskofesta eta guzti izan zuten, 13:00etan bakoitza bere ikastetxera itzuli aurretik.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30, zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

# Hogeita bigarrenean hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea dela aldarrikatu du Korrikak

**Denbora luzez zain egon ostean, apirilaren 10eko lehen orduetan iritsi da Korrika Irunera. Euskal Herriko lurretan barrena egindako 2.500 kilometroko ibilbidean euria, eguzkia eta elurra izan ditu bidaide euskararen aldeko lasterketak. Hala ere, bidean aurkitutako oztopoak eta trabak gainditu eta apirilaren 10ean Donostiara iristeko helburua bete du. Bien bitartean, Euskal Herrikol bazter bakartuetaraino euskara erabiltzeko, laguntzeko eta sustatzeko mezua eraman du lasterketaren 22. edizioak.**

Korrika Santiago zubitik sartu zen apirilaren 10eko 00:46ak jota, atzerapen pixka batekin, lekukoa Lapurditik Gipuzkoan sartuz. Irunen Nafarroa hiribidetik, Ama Xantalen ermitatik, Euskal Herria hiribidetik, Arretxe gainetik, Soroxarta parketik eta Letxunborro hiribidetik pasa ostean, Hondarribira iritsi zen lekukoa 1:30ean Mendeluko zubian. Dena den, 22. Korrikak bigarren zati bat ere egin zuen Irungo kaleetan barrena guztiz alde egin aurretik. Izan ere, irundarrek 2:25ean lekukoa Mendeluko zubian berreskuratu zuten berriro Letxunborro hiribidetik eraman eta Landetxa auzoko hainbat txokotatik igaro ostean, Gurutzen oiartzuarren esku 3:05ean utzi aurretik.

Euskararen lasterketa Irungo lurretan sartu aurretik, Korrika giroa sortzeko hainbat ekintza antolatu ziren apirilaren 9an Irunen bertan. Ekintzak goizeko 12:00etan hasi ziren Irungo alde zaharrean egindako trikipoteoarekin. Bazkalorduan EKT elkartean bapo bazkaldu ostean, hiriko txikienak ere Korrikara hurbiltzeko haur jolasak antolatu ziren Urdanibian plazan arratsaldeko 17:00etan. Jolasekin batera, Burrunba elektrotxarangak Urdanibia plazaren inguruan bildutakoak musikarekin dantzan jarri zituen. Behin jokoak amaituta, 18:30ean haurrek txokolatadarekin berreskuratu zituzten jolasean galdutako indarrak.

Ilundu ahala, Korrikaren furgoneta hirian sartzeko unea hurbilago zegoen. Hitzordu handiaren aurretik lasterketa giroa hoztu ez zedin, Irunabar elkarteko kideek Ziztaka elkarteak antolaturiko bertso saio musikatua eskaini zuten Urdanibia plazan. Korrika iritsi aurreko azken ekitaldia Stepi Selektah eta lagunek plaza berean eskainitako kontzertua izan zen. Egitasmo askotariko honi esker, irundarrek are gogo handiagoz jaso zuten euskararen lekukoa.

**Agurrik ez Landetxan**

Apirilaren 10eko goizean Korrikak bere ibilbidea Irunen egina bazuen ere, Landetxa auzoko bizilagunak euskararekin hain lotuta dagoen hitzordu berezi hau pixka bat luzatu ahal izateko moldatu ziren. Izan ere, igandeko 11:30ean Landetxako auzo elkartean hasita Korrika txikia antolatu zuten auzoan barrena. Horrela, lasterkari txikienek Doraemonekin batera arineketan egin zuten. Goiza amaitu aurretik, auzoko frontoian Korrika amaiera festa ospatu zen.

22. Korrika amaituta, hogeita hirugarrenean pentsatzen eta hura antolatzen hasteko unea da. Beraz, irungo euskal komunitateak 700 egun baino gehiagoz eutsi beharko dio berriro euskal lekukoa heltzeko gogoari. Nolanahi ere, euskararen erabilerak egun zehatzik behar ez duenez, egunero izango da euskara ahotik arineketan ateratzeko aukera.

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94
HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12
TXINTXO
Hurbildu zaitez gure pintxoak probatzera
943 10 33 56
Dario de Regoyos Kalea, Irun

# Odol emateak bultzatzeko kanpaina antolatu dute Eguzkitzako ikasleek

**Eguzkitza ikastetxeak odolarekin loturiko STEAM proiektua burutu du 2021/2022 ikasturtean zehar. Proiektuan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleek parte hartu dute. Gelan odol aparatuarekin loturiko edukia landu ostean, Gipuzkoako Odol Emaileen laguntzarekin ikastetxean eskola komunitateak odola emateko kanpaina antolatu dute.**

Ixabel Icardo Egukitzako ikasketaburuak azaldu duenez, "ez dakit zergatik baina odol aparatuaren gaiak interes berezia pizten du beti ikasleengan". Interes berezi hori baliatuta, odola emateko kanpainak espero zitekeen arrakasta lortu du Eguzkitza ikastetxean. Batetik, Ixabel Icardok adierazi du 5. eta 6. mailetako ikasleek gogo handiz parte hartu dutela kanpainaren prestaketan egindako ekintza guztietan. "Uste dugu ikasleek odol aparatuarekin loturiko edukiak lantzeaz gain, odola emateak duen garrantziaz jabetu direla", gehitu du ikastetxeko ikasketaburuak.

Bestetik, proiektua biribiltzeko, martxoaren 28an arratsaldeko 16:30etik aurrera Eguzkitzan odola emateko aukera eskaini zieten eskola komunitateko kideei. Hau da, eskolako irakasleak, gurasoak, auzoko bizilagunak eta, orokorrean, hiriko biztanleak odola ematera animatu zituzten. Deialdia luzatu eta martxoko astelehenean helburua bete zuten: guztira 40 pertsona hurbildu ziren Eguzkitzara odola ematera.

**Ikasleak antolatzaile lanetan**

Eguzkitza ikastetxean odol emate kanpaina egiteko beharrezko antolaketa lanez ikasleak arduratu dira. Horretarako, gelako zereginak banatu dituzte eta lan talde txiki bakoitzak bere ardurak izan ditu. Talde batzuetan kanpaina iragartzeko kartelak prestatu eta ikastetxean zein auzoan itsatsi dituzte. Beste batzuk, ikastetxeko espazioak antolatu eta odol emaileak ez galtzeko seinaleak prestatu dituzte. Odol ematea egin zen egunean bertan ikasleek gertutik jarraitu ahal izan zuten prozedura, emaileei harrera egiteaz gain, odola eman ostean jatekoa eta edatekoa ere eskaini zieten. Atarian, berriz, ikasle taldeak odol emaileak bertso batekin agurtu zituzten, haien prestutasuna eskertzeko.

Jon Andiano eta Eukene Leiza Egukitzako odol emate kanpainaren prestaketan parte hartu duten ikasleetako batzuk dira. Bi ikasleek odol aparatuaren gaia asko gustatu zaiela adierazi dute eta, gainera, haien gurasoak konbentzitzea lortu zuten martxoaren 28an eskolan egindako odol emate jardunaldian parte hartu zezaten. Eukene Leizaren hitzetan, "eskolan ikasitakoaren ostean uste dugu odola ematea ingurukoak laguntzeko oso ekintza egokia dela". Jon Andianok, berriz, etxean ezer egin gabe egon ordez, odola emateak ahalegin txikia eskatzen duela gogoratu nahi izan die oraindik pausoa ematera ausartu ez direnei. Gainera, Eguzkitzako ikasleek aho batez onartu dute handitzen direnean eurei ere odola emateko gogoak sartu zaizkiela.

Odola emateko proiektuak eskolako hainbat arlotan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ere eman du. Jonek eta Eukenek azaldu dutenez proiektu honen barruan odolaren ezaugarriak, zirkulazio sistema, odol hodien kokapena eta odola nola garraiatzen den ikasi dute. Era berean, odola emateko jardunaldia prestatzeko arreta handiz landu dute odol taldeen arteko bateragarritasuna. Gainera, ikasle talde batek programatzen ikasi zuen proiektuan teknologia txertatzeko, odolarekin loturiko jolas sinple bat sortu ahal izateko.

**Proiektuan bidelagun**

Odol emate kanpaina berezi hau antolatu ahal izateko Ixabel Icardok gogorarazi du Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen laguntza ezinbestekoa izan dela. Izan ere, proiektua elkartera aurkeztu bezain laster elkarteko arduradunak egitasmoa aurrera ateratzeko prestutasuna adierazi zien. Hala ere, kanpaina hau antolatu aurretik, Eguzkitza eskola Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearekin elkarlanean aritzen zen jada. Izan ere, pandemia iritsi aurreko ikasturteetan odol aparatua lantzen zenean, elkarteko arduradunen bat eskolara gonbidatzen zuten ikasleei euren lana zein zen azaltzeko. Aurten, aldiz, elkarlana estutu eta odol emaile berriak erakartzeko batu dira ikastetxea eta odol emaileen elkartea. Era berean, Icardo ikasketaburuak adierazi du Berritzegunearen laguntza ere funtsezkoa izan dela STEAM proiektua behar bezala bideratzeko.

**STEAM proiektua**

Irungo Eguzkitza ikastetxean proiektuka lan egiten badute ere, aurten odol aparatuaren gaia modu ezberdin batean lantzeko modua topatu dute STEAM proiektu bati esker. Izan ere, TEAM siglek bost diziplina identifikatzen dituzte: Zientzia (Science), Teknologia, Ingeniaritza (Engineering), Artea eta Matematikak. Beraz, STEAM proiektuetan ikastetxeek bost diziplina horiek uztartzen dituzte ikasleek zeharkako zein oinarrizko gaitasunak garatu ditzaten.

Ixabel Icardo Eguzkitzako ikasketaburuaren hitzetan, "STEAM proiektuen helburua da gizarteratu ahal daitekeen zerbait egitea". Aurtengoan odola izan da proiektua burutzeko Larreaundi auzoko ikastetxeak antolatu duen gaia. Eguzkitzako ikasketaburuak azaldu duenez, 5. eta 6. mailako ikasleek gorputz aparatuen funtzionamendua lantzen dute eta, zehazki, odol aparatua betiere proiektua burutzeko egokia izan zitekeela erabaki zen irakasleen klaustroan.

Odol emate kanpaina gauzatu ahal izateko Eguzkitzako ikasleen eta irakasleen inplikazio pertsonala beharrezkoa izan bada ere, ahaleginak bere fruituak eman ditu. Etorkizun laburrean behintzat proiektu bera errepikatzeko asmorik ez badute ere, Eguzkitza eskolatik baieztatu dute ikasleak motibatzeko proiektu berrien bila daudela jada.

# ChispaDeLaVida Zentroa: osteopatia eta Kyma Metodoa - Eskuzko medikuntza

**Bernard Tisné-k eta Sébastien Tisné-k Chispa de la vida zentroa ireki berri dute Irungo Iparralde etorbideko 44. zenbakiko 2. solairuan. Haien egoitza Ficoba Gipuzkoako erakustazoka pareko eraikin zuri batean kokatua dago eta Repsol zerbitzugunearen ondoan doako aparkaleku pribatua dago. Kontsultak 40 euroko prezioa du eta hitzordua eskatzeko +34 624 440 482 telefono zenbakira deitu behar da.**

**Bernard, zer motatako zerbitzuak eskaintzen dituzue zuen zentroan?**

Lehenik osteopatia. Izan ere, osteopatia tradizionala praktikatzen dugu, Europako herrialdeetan irakasten den bezala, adibidez, Espainiako eskola pribatuetan edo Europako beste herrialde batzuetako unibertsitateetan.

Teknika enpirikoagoa ere praktikatzen dugu. Osteopatian trebatua eta graduatua izan ondoren, medikuntza praktika horiek gure interesa piztu zuten: «Gure herriko biztanleak», «Arbasoak», eta eskuzko sendatzaileen tekniken bila jarraitu dugu Frantzian eta mundu osoan. Gero, ikerketa horietatik guztietatik aberastuz, osteopatia tradizionalaren eta eskuzko sendatzaileen teknika horien guztien keinurik eraginkorrenak bildu ditugu. Orain semeak eta biok praktikatzen dugu.

Nire eskuzko metodoa sortu ondoren, mundua aldatzen ikusi nuen nire karreran. Ni ikustera etorri ziren pertsona guztiak gaizki zeuden emozionalki, ez zuten arnasik hartzen eta abar, eta konturatu nintzen bizkarreko arazoen %80 neke emozionalak eragindako arazoetatik zetozela. Horregatik sinetsi daiteke Kyma metodoan: arnas sistema desblokeatzeko aukera ematen du, urduri akituta dauden pertsonei aire berri bat emateko, eta metodo hori Chispadelavida zentroan praktikatzen dugu, hemen, Irunen.

Era berean, Sebastianek yogako irakasle gisa duen esperientziaz baliatzen gara, zenbait kasutan saioen amaieran pertsonei beren arazoetarako egokienak diren luzamendu eta mugikortasun ariketak eskaintzeko, saio terapeutikoa osatzeko eta, batez ere, gero beste arazo batzuk sortu ez daitezen.

**Zergatik erabaki duzue zuen zentro berria Irunen jartzea?**

Suitzako, Belgikako eta Frantziako Kyma Metodoan nire seme Sébastienekin trebatu ondoren, gure teknikak Espainian ere ezagutzera ematea erabaki genuen. Lourdesekoak gara Frantzian, Euskal Muga nahiko hurbil genuen eta hemen kokatu ginen. Nire semeak sei urte zeramatzan Parisen lanean, eta nik Horguesen (Lourdesetik gertu), eta orain hemen elkartzea erabaki dugu, zentroan elkarrekin lan egiteko.

**Bernard, Irungo zentroa ireki aurretik, zein beste lekutan lan egin duzue?**

Frantzian osteopata gisa lan egin dut 35 urtez. Lehenik Bordelen eta gero nire jatorrizko eskualdera itzuli nintzen, Pirinio Garaietara, Horguesera, Lourdesetik gertu, nire lanbidean jarduteko.

**Jaso dituzue Irunen lehen bezeroak?**

Bai, noski, eta batzuek eskerrak emateko deitu ziguten, eta gauza horiek oso zoriontsu egiten gaituzte, hau da, jendea guri esker beren bizitzetara errazago itzultzen dela ikustea.

**Non zaudete eta nola jar daitezke harremanetan interesdunak?**

Zentroa Ficobako Azokaren aurrean dago, Repsol gasolindegiaren ondoan, eta autoz datozenentzat doako aparkalekua ere badago. Modurik errazena gure webgunera joatea da, zentroari buruzko informazio guztia hor dago, eta gunea www.chispadelavida.com da.

**Zer-nolako gaitzekin edo berezoekin egiten duzue lan?**

Adin guztiekin, haurtxoekin izan ezik. Ohartzen gara hemen pazienteen arazoa Frantziako bera dela, % 50 artikulazio eta muskulu arazoengatik datorrela, eta % 50 Kyma metodoagatik (arnasketa arazoak, diafragma blokeatua, urdaila lotuta, idorreria, etab.).

**Zertan datza Kyma metodoa?**

Alde nagusia zutik lan egiten dugula da; izan ere, gure ustez, pertsona bat berrorekatzeko beharrezkoa da hura desorekatu den posizioan orekatzea. Hogeita lau orduko egun batean, demagun zortzi orduz egiten dugula lo, gainerako orduetan, hau da, hamasei orduz, esna eta bertikalean gaudela... Kutxa torazikoa eta sabela deskonprimitzeko erabiltzen dugun metodoa bakarra da, erabiltzen ditugun keinuei esker. Terapia edo arnasketa teknika askotan ikus dezakegun moduan arnasteko eskatzen diogu pertsonari. Gure kasuan, bestearen arnasketaren kontrola hartzen dugu arnasketa erritmo berri bat eskaintzeko. Eskuz laguntzen diegu pertsonei beren gorputzak irekitzen airea sakonago sartu eta irten ahal izateko. Airea gorputzean naturalki birzirkulatzen denean, ez dago beste zereginik, naturak bere lana egiten du gu konturatu gabe.

**Zure teknika irakasten diezu horretan interesa duten beste profesionalei?**

Arnasketa terapia guztiak lotzen dituen lokarria da. Niretzat Kyma metodoa beharrezkoa da osasunaren beste diziplina guztietarako, bere bizitzako arazoengatik nekatuta dagoen norbaiten arnasa esnatzea ez baitago lanbide bakar baterako gordeta. Beraz, metodoa irakatsi nien osteopatei, fisioterapeutei, kiropraktikoei, psikologoei, hypnoterapeutei, coach-ei eta terapia konbentzionalak eta alternatiboak egiten dituzten beste askori. Covida eta konfinamenduak iritsi zirenetik, asko mantsotu dugu errimoa azken bi urteotan, eta, batez ere, Chispadelavida zentroa hartu dugu ardatz gaur.

**Zuen lana "gorputza esnatzea" bezala definitzen duzue?**

Guretzat, gaur egun jendeak mina badu, urduri eta emozionalki nekatuta dagoelako da, eta horrek bat-batean arazo fisikoak, muskularrak, artikularrak, digestiboak eta arnasketakoak eragiten ditu.

Bakoitza bere erara ateratzen saiatzen da, batzuek kafe asko hartzen dute, beste batzuek osagarri dietetikoak, beste batzuek bitaminak eta guk irtenbiderik naturalena eskaintzen dugu, arnasketa naturala berreskuratzea, arnasketa naturala aurkitzen dugunean energia berreskuratzen dugulako.

# San Marcial klubak Arnasa elkarteari laguntzeko txapelketa solidarioa antolatu du

**Bi urtez txapelketa atzeratu ondoren, apirilaren 22rako eta 23rako prestatu du San Marcial klubak alebin edo kimu kategoriako jokalarientzat bere lehen txapelketa propioa. Arnasa elkartearekin elkarlanean antolatutako txapelketa solidarioa izango da eta partidetarako sarrerekin bildutako diru guztia elkarteak dohaintzan jasoko du. David Ruiz San Marcial klubaren futbol eskolako koordinatzaileak denboraldi amaierarako benjaminentzat beste txapelketa bat antolatzeko asmoa dutela aurreratu du.**

**Zergatik erabaki duzue San Marcial klubetik txapelketa hau martxan jartzea?**
Duela bi urte hasi ginen txapelketa hau antolatzeko izapideak egiten, baina alde batera utzi behar izan genuen pandemia zela eta. Hasiera batean, ideia 2020an klubaren lehen txapelketa antolatzea zen, eta, harrezkero, ideia berriro martxan jartzea falta zitzaigun. Klubetik gogo handia genuen gure txapelketa antolatzeko. Lehenengo txapelketa honetan kimuek parte hartuko dute eta ekainean beste bat antolatzea gustatuko litzaiguke benjaminek ere jokatzeko aukera izan dezaten.

**Erraza al da klub batetik txapelketa propio bat antolatzea?**
San Martzial klubetik txapelketa indartsuak antolatu nahi ditugu. Ohiko txapelketetatik haratago doan pauso bat gehiago eman nahi dugu, eta horrek zailtasuna gehitzen du, batez ere lehenengo edizioa izanda. Beste ikaskuntza-prozesu bat da, baina pixkanaka erritmoa hartzen joango gara. Orain arte beste klub batzuek antolatutako txapelketetan parte hartu dugu, baina hemendik aurrera gureak ere izatea gustatuko litzaiguke.

**Zergatik erabaki duzue txapelketa Arnasa elkartearekin batera antolatzea?**
Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egoitzak dituen Euskadi osorako elkarte bat da Arnasa, fibrosi kistikoa duten pertsonak biltzeko helburuarekin sortua. Gure entrenatzaileetako batek gaixotasun hori duen alaba bat dauka eta horri esker gaixotasun hau hurbilagotik ezagutu ahal izan dugu. Bera elkarte honekin harremanetan dago eta horrela elkartu dira gure bideak. Hain zuzen ere, klubaren helburuetako bat mota horretako elkarteekin elkarlanean aritzea da, kirol egokitua sustatzeaz gain, futbola interesgarriak izan daitezkeen edo jendea kontzientziatzen lagun dezaketen gaiekin elkartu ahal izateko.

**Zeintzuk dira txapelketaren helburuak?**
Kirola sustatzea eta txapelketa propio bat antolatzea izan daitekeenaz gain, gure klubetik Garapen Iraunkorreko Helburuak sustatzen saiatu nahi dugu. Guztira 17 dira eta antolatuko dugun txapelketa honen barruan 8 helburu identifikatu ditugu eta helburu horiekin lerrokatuta egon gaitezkeela uste dugu. Uste dugu zerbaitetan lagundu dezakegula ekintza txikiekin. Ekintza horietako bat zero gosea izeneko helburua da, eta, horretarako, gure ekitaldiaren antolakuntzatik soberan geratzen den janari guztia tokiko erakunderen bati emango diogu. Berdintasuna ere landuko dugu eta antolakuntzatik egiten diren lanak ez dira generoaren arabera bereiziko. Iraunkortasuna ere kontuan hartu nahi dugu eta, horretarako, plastikoaren erabilera murriztuko dugu. Txingudiko Zerbitzuekin hitz egin dugu eta edalontzi berrerabilgarriak emango dizkigute, euro baten truke banatuko ditugunak, eta edalontzian erabiltzez amaitzean, itzuli egingo da. Lankidetzari dagokionez, Arnasarekin elkarlanean arituko gara, sarrerak 2 euroko prezioa izango baitu, eta sarreren zenbakiarekin hainbat zozketa egingo dira txapelketan zehar afariak, kirol ekipamenduak eta bestelakoak banatzeko. Bildutako diru guztia elkartera bideratuko da zuzenean. Gainera, txapelketak kontzientziazioan lagundu nahi du, oso ezaguna ez den gaixotasun bat ikusaraziz.

**Nolako harrera izan du txapelketako lehen edizio honek inguruko klubetan?**
Aurten, guztira, 2011ko belaunaldiko 14 talde lehiatuko dira. 2010eko belaunaldikoak 18 talde izango dira guztira. Txapelketan Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko taldeek parte hartuko dute. Guztira bi egunetan 99 partida jokatuko dira guztira, aurreko fasea, finalerdiak eta finala barne.

**“ Txapelketan Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko taldeek parte hartuko dute”**

**“Gure klubetik Garapen Iraunkorreko Helburuak sustatzen saiatu nahi dugu”**

David Ruiz, San Marcialeko futbol eskolako koordinatzailea

**Txapelketaren emaitzak aplikazio bidez jarraitu ahalko dira, ezta?**
Bai, paperaren erabilera ahalik eta gehien murriztzeko helburuarekin, txapelketa garatzeko eskura ditugun tresna digital guztiak erabiltzen saiatuko gara. Esteka baten bidez, partiden ordutegiak, emaitzak eta sailkapenaren aldaketak denbora errealean ikusteko aukera emango diogu jendeari. Horrela, ez dugu panelik erabiliko paperak aldatzeko eta dena eskuz idazteko. Txapelketari buruzko guztia aplikazio honetatik kontrolatu ahal izatea nahi dugu.

**Noiz jokatuko dira partidak?**
Apirilaren 22an, ostirala, 2011ko belaunaldiko partidak jokatuko dira, eta apirilaren 23an, larunbata, 2010eko belaunaldiko partidak.

**Zeintzuk dira lehen edizio honetarako aurreikuspenak?**
Garrantzitsuena parte-hartzaileek futbol jardunaldi hauetaz gozatzea da. Bestalde, horrelako txapelketak martxan jartzeko balio izatea nahi dugu, eta hemendik aurrera antolatuko direnak futbola baino gehiago izatea. Guk antolatutako txapelketetan publikoak ere bere ekarpenak egin ahal izatea nahi dugu. Horregatik, baliagarri gerta dakiekeen informazio guztia ematen ahalegindu gara, adibidez, Ficoban disuasioko aparkalekua dutela.

**Oraindik lehen edizioa antolatzen ari bazarete ere, jada etorkizunekoetan pentsatzen hasi zarete?**
Bai, asmoa lehenik eta behin kimuentzat lehen txapelketa hau antolatzea da, eta denboraldiaren amaierarako benjaminentzat beste bat prestatzea, klubeko txikienak izango liratekeenak, eta haiek ere horrelako ekitaldietan parte hartzeko aukera izatea nahi dugu.

Maite Gonzalez, Jaizubia Hipikako zuzendaritza batzordeko kidea:

# “Zaldira igotzen garenean denok berdinak gara”

**1984an sortu zen Jaizubia Hipika Kluba. Ia 38 urte geroago oraindik lanean jarraitzen dute, helburu berari jarraituz: kirol hipikoa sustatzea eta ezagutaraztea. Maite Gonzalez da egun Jaizubia Hipika Klubeko zuzendaritza batzordeko kideetako bat eta egun Jaizubiako hipikak zein proiektu dauzkan azaldu digu.**

**Jaizubia hipikan zuen kirola sustatzeko helburuarekin lanean jarraitzen duzue?**
Bai, horixe da. Sortzaileek hasitako bide berari jarraitzen ari gatzaizkio eta guretzat zaldiketa eskola da atal garrantzitsuena, gure balioak transmititzeko modua baita. Gure nahia da edonon hipika kirola ezagutzea, beraz, bide horretatik jarraitu nahi dugu.

**Horretarako, zein ekimen antolatzen dituzue klubean?**
Klubaren barnean gauza asko egiten ditugu. Adibidez, zaldiketa eskolako klaseak dauzkagu eta, bestetik, mendi irteerak egiten ditugu. Era berean, lehiaketak antolatzen ditugu, gure klubeko jendeak praktikatzeko aukera izan dezan eta, bestetik, kluba bera ezagutarazteko. Egia esanda, ahalegin handia eskatzen digu, horregatik diru laguntzak behar ditugu. Hala ere, klubean boluntario talde handia dugu eta haiek laguntzen digute proiektu guztiak aurrera atera daitezen.

**Egun zenbat kide dauzka Jaizubia Hipikak?**
Hipikako kideak 200 diren arren, guztira 300 federatu dauzkagu. Kirolean hasteko jende guztia lehenik federatu egin ohi da eta gero batzuek hipikako bazkide izatea erabakitzen dute.100 inguru izango da gutxi gorabehera egunero hipikara kirola praktikatzera hurbiltzen garenak.

**Zertan ezberdintzen da zuen kirola besteetatik?**
Oso kirol ezberdina da. Kirola egiteko animalia bat daukagulako gurekin, beraz, bikote bat gara, izaki bakarra bagina bezala. Hori da desberdintasun nagusia. Ondorioz, zaldiaren mantenuak kostu ekonomiko handiagoa dakar beste edozein kirolekin alderatua. Funtsezkoa iruditzen zaigu jende guztiak kirol hau ezagutzea eta praktikatzeko aukera edukitzea. Zaldira igotzen garenean denok berdinak gara eta hori oinarrizko balioa da, ez dugu desberdintasunik nahi.

**Kirol fisikoa izateaz gain, buru lan handia eskatzen du?**
Jende asko ez da konturatzen zaldian ibiltzea ere ariketa fisiko handia dela. Bestetik, oreka ondo kontrolatzea, koordinazio handia izatea, zaldira igotzeko adore nahikoa edukitzea eta zaldiarengan konfiantza handia izatea lortu behar da.

**Nolakoa da horrelako klub baten batzordean lan egitea?**
Arraroa da, batez ere oso jende gutxik ezagutzen duen kirola delako, bai maila arruntean zein maila instituzionalean. Kirola zertan datzan azaltzen duzunean jendea harritu egiten da eta gauza oinarrizkoenak ere ez dira ezagutzen. Aire zabalean eta animaliekin harreman etengabean egiten den kirola denez, esango nuke kirol bat baino gehiago bizimodu bat dela. Pixkanaka nabari dugu bai Irungo Udalarengandik zein Foru Aldundiarengandik gure kirola sustatzeko interes handiagoa dagoela.

**Azkenaldian zuen kirolarekiko interesa handitu da?**
Nabari da guk erakundeetara hurbiltzeko eta gure lana azaltzeko egin dugun lana. Era berean, egia da hipikara jende berria etortzen hasi dela. Pandemian jende asko inguru honetara hurbiltzen zen paseatzera eta jende berria ezagutzeko balio izan digu. Guretzako oso ona da jendeak hipikari buruz hitz egitea.

**Pandemiak zuei zuzenean nola eragin dizue?**
Pandemiak alde onak eta txarrak izan ditu. Batetik, pandemia hasi zenean oso gaizki pasatu genuen, oso zaila izan baitzen lana eta kluba aurrera ateratzea. Zaldiak, animaliak diren aldetik, ezin genituen guztiz ahaztu. Egunero eman behar zaie zaldiei jaten, baita pandemian ere. Langileek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak izan arren, hipikara ia egunero etorri behar ziren ukuiluak garbitu eta zaldiak zaintzeko, eskolak bertan behera egon ziren bitartean. Gainera, jende askok zaldiak hemendik atera eta beste zelaietara eraman nahi izan zituen. Bestetik, jendeak naturarekiko kontaktua behar zuenez, asko izan ziren hipikaraino hurbildu zirenak eta gure lana ezagutzeko aukera izan zutenak. Gaiak jendearengan interesa pizten zuela ikusi genuen, asko galderak egiten baitzizkiguten.

**Zer behar duzue kirol hau ezagunagoa izan dadin?**
Horretarako diru laguntzak jasotzea ezinbestekoa da. Ez dugu nahi Jaizubia eliteko zaldiketa eskola bat izatea, baina kluba egun dagoen moduan mantentzeko dirua behar da. Beraz, instituzioen inplikazio handia eskatzen du horrek eta dagoeneko elkarlanean ari gara. Laguntzarik jaso ezean, ezinezkoa da kirol hau mundu guztiari hurbiltzea eta edonork praktikatzeko aukera izatea.

**Irungo Kirolaren sarietan Klub Onenaren saria irabazi zenuten. Horrelako aitortzak lagungarriak dira zuentzat?**
Bai, egia esan, sorpresa handia izan zen guretzat, ez baikenuen espero. Asko eskertzen dugu egiten dugun lana errekonozimendua jasotzea, bide beretik jarraitzeko animoak ematen baitizkizu.

**Zein erronka dituzue datozen urteetarako?**
Proiektu asko dauzkagu eskuartean, baina dirurik gabe ezer gutxi egin dezakegu. Hitzarmen bat lortzeko prozesua hasi dugu, Irungo Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Oraintxe hori da gure helburu garrantzitsuena eta topera lan egin dugu hori lortzeko.

# Aste Santuan programazio berezia Oiasso Museoan

**Aste Santuko eta Pazko asteko oporrak gainean ditugu jada. Urtez urte opor-egun hauen datak martxotik apirilerako tarte horretan aldatzen badira ere, erromatar garaiko egutegira jotzen badugu, udaberriko lehen aste hauetan uztak eta artaldeak babesteko jaiegun eta ospakizun ugari aurkituko ditugu, eta ospakizun horien artean esanguratsuenetako bat Cerialia izeneko jaialdia da.**

Cerialia jaialdia nekazaritza eta trantsizioen (tartean jaiotza, ezkontza eta heriotza) babesle zen Zeres jainkosaren omenez ospatzen zen. K.a. 176. urtetik aurrera, jaia apirilaren 12an hasi eta 19 arte iraun behar zuela zehaztu zen. Egun horietan debekatua zegoen beltzez janztea eta zuri koloreko arropak eramatea gomendatzen zen. Antzezlan eta otordu berezien antolaketa oso ohikoa zen eta jaialdiaren azken egunean zirkuan koadriga lasterketak ikusi zitezkeeni. Amaierako jardueren artean, su emateko lastargiak loturik zituzten azeriak askatzen zituzten zirkuan, Zeres jainkosari ofrenda moduan eskaintzeko. Ohitura horrek aitzinako elezahar bat zuen oinarri, zeinaren arabera mutil gazte batek azeri eme bat harrapatu, su eman eta nahi gabe urte hartako uzta guztiak erre baitzituen. Zeresen gurtza erlijiosoa emakumeek kudeatzen zuten eta haiek bakarrik parte hartu zezaketen, eta horregatik zuten enperatrizek oso gogoko jainkosa hau.

Apirilaren 21ean beste jai bat ospatzen zen, aurrekoa baino xumeagoa, Parilia deitutakoa, artzain eta artaldeen babesle zen Pales jainkosa gurtzeko. Egun horretan, sufrea erretzen zen horrek sortzen zuen keaz artaldeak purifikatzeko eta sakrifizio ez odoltsuak egiten ziren, esne eta pastelen eskaintzak esaterako. Egun hau, mitoaren arabera, K.a. 753. urtean gertaturiko Erroma hiriaren fundaziorekin lotuta zegoen, eta, hori horrela, Pales jainkosaren jaiak bere jatorrizko izaera galdu zuen pixkanaka eta K.o. II. menderako Romaia izena hartu zuen Erromaren sorreraren urteurrena gogoratzeko.

Urtero bezala, adin guztientzat egokiak diren jardueren programazio berezia antolatu dugu Oiasso Museoan Aste Santuko eta Pazko asteko opor hauetarako. Oraindik ez duzula Bidasoaldean aurkitutako ondare arkeologikoa ezagutzen? Egun jakin batzuetan, betiere goizeko 11:00etan, bisita gidatuak antolatuko ditugu 5,50 euroren truke:

-Apirilaren 18an, astelehena, Museoan barrena bisita gidatu komentatua izango dugu.

-Apirilaren 17an eta 24an, igandea, Irungo kaleetan barrena TIR aplikazioaren bitartez aztarnategi arkeologiko interesgarrienak zein diren adierazi eta Ama Xantalen ermitan sartuko gara, bertan aurkitutako errausketako nekropoli erromatarra ikustera.

-Apirilaren 16an eta 23an, larunbata, zatoz Irugurutzetako Interpretazio Zentrora, industrializazio garaiko meategiak eta kiskaltzeko labeak bisitatzera.

Honez gain, etxeko haur eta gaztetxoek erromatar mundua ezagutu dezaten , betiere goizeko 11:00etan eta 4 euroren truke, zenbait tailer antolatu ditugu, berezko jai egunetan familiek ere haurrekin batera parte hartu dezaten:

-Apirilaren 14an eta 21ean, Arkeolab: arkeologia tailerra. Indusketa batean parte hartu ondoren, aurkitutako objektuak laborategian ikertu ahalko dira. 8 urtetik gorakoentzat.

-Apirilaaren 19an eta 22an, Mosaiko tailerra. Erromatar mosaikoak egiteko teknika ezagutu eta tesela txikiak erabiliz bat sortuko dugu. 6 urtetik gorakoentzat.

-Apirilak 15ean eta 20an, "Erroma eta zinea". Romulo eta Remo ezagunak egiten al zaizkizu? Tailer honetan animaziozko film labur baten pauso guztietan parte hartuko duzu. 9 urtetik gorakoentzat.

Honetaz gain, gure ohiko ordutegian eta prezioetan, museoa bera bisitatu dezakezu eta bertan maiatzera arte izango dugu ikusgai Gipuzkoako aingura litikoen erakusketa, sarrera doan. Harrizko bederatzi aingura dira, itsas ondarearen elementu ezezagunenetako bat ezagutarazteko. Gainera, etxeko txikienentzat familia giroan egiteko zenbait jarduera ere eskaintzen ditugu museoko ordutegian, 3,85 euroren truke:

-APP: Herkulesen 12 probak. 8 urtetik gorakoentzat. Gainditu itzazu hamabi proba Museoan egingo duzun ibilbidean.

-Oiassoko pieza bihurriak. Aurkitu Oiasso Museoan ezkutatuta dauden piezen argazkia eta partekatu sare sozialetan!

Adierazitako jarduera guztietan parte hartzeko, aldez aurretik erreserba egitea beharrezkoa izango da Museora bertara etorriz, 943 63 93 53 telefonora deituz edota honako helbide honetara mezu bat idatziz: Info-oiassomuseo@irun.org. Informazio gehiago gure webgunean: www.oiasso.com.

**Anima zaitez!**

**Jokin Lanz**

ESTUDIO FOTOGRAFÍA GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

# EL PILAR HH

## Denbora-pasak

**7 hitz: Lekaleak**

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Y | I | N | D | A | B | A | Y | Z | G | A | H | T | D | |
| D | O | M | U | B | Q | Q | Q | F | O | I | K | X | P | |
| M | H | T | F | K | L | W | B | Z | I | L | Q | I | B | |
| Z | Y | G | G | T | Y | G | X | K | F | A | L | A | D | |
| A | J | V | A | B | L | G | O | Z | H | R | N | L | C | |
| D | H | T | R | D | I | L | I | S | T | A | N | F | Z | |
| R | O | O | B | G | B | J | P | J | K | M | H | C | R | |
| Z | S | A | A | D | A | K | C | W | K | J | I | V | B | |
| J | J | N | N | F | W | A | S | Q | O | V | Q | C | X | |
| H | U | C | T | F | G | U | R | N | X | W | P | P | E | |
| B | S | O | Z | G | X | X | B | K | F | J | G | B | Z | |
| A | I | J | U | E | A | L | U | P | I | N | U | B | E | |
| B | H | M | X | B | A | B | A | R | R | U | N | E | Y | |
| A | P | Q | O | P | Q | S | L | X | R | T | I | Z | B | |

Garbantzu, babarrun, indaba, baba, ilar, dilista, lupinu.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 2 | | | 9 | |
| | 7 | | | | | 6 | 8 | 2 |
| 2 | 4 | 6 | | | | 7 | 3 | |
| | | | 3 | | 5 | | | |
| 3 | | 2 | | 7 | | 9 | | |
| 7 | | | | 8 | | | | 4 |
| | | | 4 | | 8 | | | |
| 6 | | | | | 7 | | 2 | 3 |
| | 3 | | | 5 | 2 | 8 | | |

# EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

## Urdai saltzalle baten kontua, bertsotan

Mañeru´ko arakiña
gizon jakiña,
arek esantziran
urdariya etzala fiña,
ai ura miña
saldu eziña,
egostun on bat
egin nezazu
Ama Birjiña.

Mañeru´n kargatu nitzan
Estrella´rako (sic),
atso bat antzeguan
kalian pronto,
"¿Cuanto vale una arrúa?"
"Haga usté loco"
Dirua noizko?
pronto beharko dut nik
pixatu ordaiko.

Diruak artu eta
joantzen ostatura,
kontua oker eiña
bazaukan duda,
atsua eldu da
nik berriz burla,
orra nola engañatu
lezaken iruak zurra

Anaia zaharrenak erakutsitako bertsoak.
Irungo Kateako S. R. A. andereari jasoa (1959-VII-29).

**(El Bidasoa, 1959-XI-7)**

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga**
**Euskaraz, Irunen barrena**

# HIRUBIDE 1. ETA 2. DBH

NO MORE MATILDAS

Imajinatzen duzu zer gertatuko zen Einstein emakume jaio izan balitz? Ba, gaur egun ez genuke jakingo nor den Einstein.

Matilda Joslynen omenez Matilda efektu gisa ezagutzen den fenomeno honek historian zehar zientzialari bikainen aurkikuntzak sistematikoki alde batera utzi dituen bidegabekeria adierazten du.

Ahaztu diren emakumeak, eredu izan ez direnak. Zientzia gizonen kontua dela esan digute. Normala, hezkuntza-materialetan emakumeen presentzia % 7,6ra iristen ez dela kontuan hartuta.

Estatistika horrek agian, azaltzen du zergatik dauden emakumeak karrera zientifikoetako plazen % 28,5ean bakarrik.

Horregatik **No more Matildas** abiarazi genuen, zientzialari horiei guztiei dagokien tokira itzultzeko mugimendua, hasteko eta behin, zergatik ez, testuliburu horietara, talentuak ez baitu generorik.

Bat egin, zabaldu eta lagundu neskei jakinarazten nahi badute, ahal dutela.

**No more Matildas,** emakume ikertzaile eta teknologoen elkartearen ekimena.

HIRUBIDEKO DBH 1 eta 2ko EUSLE IKASLEAK eta IRAKASLEAK

# Gazteek proposamen anitzez osaturiko Aste Santuaz disfrutatu ahalko dute Irungo Gaztelekuan

**Irungo Udaleko Gazteria arloak, Martindozenea Gaztelekuarekin eta Konekta zerbitzuarekin elkarlanean, Aste Santurako prestatutako ekintza berezien egitaraua aurkeztu du. Berrikuntzen artean, Aste Santuko programazio bereziaren iraupena apirilaren amaierara arte luzatu da, Frantzian eskolatutako erabiltzaileen eskariari erantzunez.**

Santi Jimenez arloko ordezkariak gogorarazi du gazteek pandemiaren ondorioz une oso konplikatuak bizi izan dituztela eta ezin izan direla normaltasunez erlazionatu, bitarte horretan gauza asko galduz. "Aukera hau oso modu ona da berriz elkartzeko, eta ziur gaude asko gozatuko dutela", adierazi du Gazteria arloko ordezkariak.

Beraz, Aste Santuko ekintza bereziak apirilaren 8an hasi ziren eta apirilaren 30era arte luzatuko dira. Ekintza gehienak Irungo Gaztelekuan bertan egingo badira ere, hainbat irteera berezi prestatu dira. Ane Calvo Gaztelekuko ordezkariak gogorarazi duenez, proposatutako ekintza gehienak doakoak dira, apirilaren 20an Donostiara egingo den irteera izan ezik. Txangoan parte hartzeko gazte bakoitzak 4 euro eta autobus bidaia ordaindu beharko ditu. Era berean, Gaztelekutik proposatzen diren ekintzetan parte hartzeko izena aldez aurretik eman behar da nahitaez, plazak mugatuta baitaude. Izen-ematea zuzenean Gaztelekura hurbilduz egin ahalko da, edo bestela 690706471 zenbakiko Whatsapp-era, gazteleku@irun.org helbide elektronikora edo Instagram bidez @gazteleku_irun kontura mezu bat idatziz.

**Gazteenak ere hartzaile**

Programazioaren iraupena luzatzeaz gain, Aste Santuko programazio berezia Martindozeneako gune guztietara hedatu da. Zehazki, Gaztelekuko lehen solairuko ekipamenduan ere ekintza bereziak egingo dira. Lehen solairua 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzat erreserbatutako gune da, haien beharrei, proposamenei eta kezkei erantzungo dien programa espezifiko bat garatzera bideratutakoa. Izan ere, Haur eta Nerabeentzako I. Planean jasotako ekintzetako bat da. Programaren garapenean Gaztelekuko Udal Zerbitzuan laugarren hezitzaile bat sartzea onartu da arretaren kalitatea bermatuta egon dadin.

Konekta zerbitzuak, Aste Santurako prestatutako ekintzen artean eta gazteen proposamenak entzun ostean, apirilaren 22an Irungo Kartingera irteera egingo du. Aurretik aipatutako gainerako irteerak ez bezala, irteera hau ez da doakoa eta gazteek 4 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu ahal izateko, aurretiazko izen-emateaz gain. Inskripzioa osatzeko inskripzio orria eta ordainagiria entregatu edo postaz bidali beharko dira gazteleku@irun.org helbidera.

Adin talde horrentzako jardueren artean apirilaren 30erako diseinatu dena nabarmentzen da. Proposamen horrek aukera emango du elkartzeko eta harremanak berriz sortzeko. Maite Tolosa Konekta zerbitzuko arduradunak adierazi du hilabete amaierako festa "elkartu ahal izateko" toki bat izango dela, hori baita gazteen eskaera nagusia, are eta garrantzitsuago bihurtu baita sozializatzeko oinarrizko ohiturak galdu diren garai baten ondoren.

Zentzu horretan, apirilaren 30ean, jarduera eremu oso desberdinetarako proposamen bat antolatuko da, non diziplina desberdinak probatu, dastatu eta baliatu ahal izango dituzten: eremu artistikoa, sushi eremua, tarot eremua, perfume eremua, perkusioa… Aisiaren forma desberdinak esperimentatzeko aukera emango duen proposamena, dena egun berean eta helburu desberdinak dituzten gazteak elkartu daitezen.

## Gaztelekutik proposatutako ekintzak

**Apirilaren 13a:** "Area 51" eskaladako aretora irteera. Jardueran jasotzen dira aretoko horma desberdinetan jolasak eta erronkak egitea.

**Apirilaren 19a:** markoak egiteko tailerra. Tailer honetan parte hartzaileek argazkientzako markoak egingo dituzte zeramikazko zatiak erabiliz. Egiten diren markoak etxera eraman ahal izango dira.

**Apirilaren 20a:** Egun osoko txangoa Donostian. Goizez TEKTONIKA erakusketa bisitatuko dugu Cristina Enean. Erakusketa horretan Garikoitz Murua eta Alicia Martinen lanak ikusi ahal izango ditugu. Gero, bazkaria Ondarreta hondartza ondoan, eta ondoren, lasertag jokoa ordubetez. Irteera goizeko 11:30ean izango da Irungo tren geltokian eta itzulera, berriz, 19:40an Colon ibilbideko topo geltokian. Oharra: Eguneko bazkaria eta MUGI txartela eraman behar da.

**Apirilaren 21a:** Perfumeak egiteko tailerra. 20 usain desberdinekin esperimentatuko dugu eta parte-hartzaile bakoitzak perfume esklusibo bat sortuko du.

**Apirilaren 22a:** Zapatilak kustomizatu. Tailer honetan apuntatzen direnek zapatila zuri batzuk margotuko dituzte.

**Apirilaren 23a:** Ihes gela. Proba eta asmakizun desberdinak gaindituz areto batetik 75 minutuan irteteko erronka dakar Gaztelekuak. Inskripzioa bakarka edo taldean egin daiteke.

Apirilaren 26a: Zinema.

**Apirilaren 28a:** Makrame tailerra. Makrame teknika erabiliz parte-hartzaileek belarritako original eta politak egingo dituzte.

**Apirilaren 29a:** Desberdintasuna bizitzea. Jarduera honen bitartez kirol egokitura hurbildu nahi dugu. Horrela, bertatik bertara ezagutuko ditugu kirolean aurki ditzakegun zailtasunak.

**Apirilaren 30a:** Sketch eta art graffity.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

# Aisialdiko begirale ikastaroa

**Norentzat:** Aisialdiko hezitzaileak eta dinamizatzaile soziokulturalak. Urtxintxak antolatua.

**Edukiak:**
– Aisialdiko soziologia, pedagogia eta psikologia.

– Hezkidetza, ingurumena, soziolinguistika, heziketako behar bereziak eta adierazpena.

– Musika, jolasak, tailerrak, lehen sorospenak…

– Udako egitasmoak, astialdiko esperientziak eta ekipamenduak.

**Iraupena**:
– 150 ordu teoriko

– 160 ordu praktiko.

– Memoria
Egutegia: Ekainaren 15ean hasi eta uztailaren 27ean saio teorikoak bukatuko dira.

**Titulazioa:** Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begiralea" titulua.

**Tokia:** Donostian.

**Prezioa:** 450 euro.
Baldintzak: 2022an 18 urte beteta izatea, DBHko titulazioa izatea eta euskara maila egokia izatea (Klaseak jarraitzeko eta memoria euskaraz entregatzeko gai izatea).

Urtxintxa
KALITATEZKO HERRITARRAK

# Kontenporanea

Kontenporanea kultura garaikideko topaketa da, arte, diseinu eta kulturaren arloan trabatutako gazteek antolatzen dutena.

Edizio honetako gai orokorra ekosistema enpatikoak dira: plaza betiere leku atsegin bat izatea nahi dugu, elkartzeko leku bat, harrera egiteko, elkar zaintzeko, non afektuek, keinu emozionalek, oroitzapenek eta oroipen partekatuek duten garrantzia; kontakizunak sortzeko eta partekatzeko lekua izango da plaza, arreta prozesuetan jarriz kolektiboki pentsatzera biltzen garen sukalde moduko bat.

**Epea:** Apirilaren 24a.

**Parte hartzeko:** Bidali zure datu guztiak eta irudia kontenporanea@irun.org helbidera.

KONTENPORANEA 2022

# Laburrideiak

Film laburren ideia txapelketa

16 urtetik gorako edozein pertsonari irekitako LABURRIDEIAK film laburren ideia lehiaketan parte hartzea proposatzen dizuegu, aurretik idazkuntzari dagokionez esperientziarik gabekoek ere parte hartu dezaten. Aurtengo leloa: "Emakume kirola, komeria hutsa?"

Hiru ideia onenek, doako gidoigintzako tutoretza saioak jasoko dituzte (3 saio), ideia gidoi bihurtu arte. Gero, gidoi onena aukeratuko dugu eta 400 euro ere irabazi ditzakezu, baita zure gidoia film labur bihurtzen ikusi!

**Epea:** ekainaren 15a

# Googaz. Deabru Jokoak

Etxetik joateko prest?

3 pertsonako taldeak osatu (18 - 30 urte).

Kutxa handi baten barruan sartu beharko zarete eta txikitako jolasak aurkituko dituzue barruan. Gainerako taldeen aurka lehiatu beharko zarete. Kutxatik irteteko gai izango zarete?

**Eguna:** apirilaren 23a.

**Ordua:** 11:00etatik 12:30era.

**Lekua:** San Juan plaza.

GOOGAZ
DEABRU JOKOAK

# Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Lasterketa/Martxa

Lasterketa eta Martxaren izen-emate epe irekita dago!

10:00etan lasterketa (5KM)

11:15ean MARTXA (3KM)

**Eguna:** maiatzaren 8a.

**Irteera eta helmuga**: Alderdi Eder (Donostia).

**Boluntarioak behar ditugu!**

Boluntario bezala parte hartu nahi duzu? Zu behar zaitugu!

**Informazio gehiago:** leire.vallespir@contraelcáncer.es helbidera idatzi, 943 457 722 telefono zenbakira deituz edo 695290602 telefono zenbakian WhatsApp bidez.

Behar zaitugu!

Folder

Luis Marianoko 12. zenbakian

# APIRILAREN

## 23a

### Familientzako ikuskizuna

**Zer:** "Ebook 2.0" Spasmok liburuaren eta liburuko protagonisten istoriorik zoragarri eta burugabeena dakarkigu.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 17:00etan.

**Prezioa:** 5 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

**Hizkuntza:** Euskaraz.

## 24a

### Espainiako Emakumeen Eskubaloi Selekzioko partidua

**Zer:** 2022ko Eslovenian, Ipar Mazedonian eta Montenegron izango den Europako Txapelketarako sailkapen faseko azken partida Irunen jokatuko da. Espainiako selekzioak Portugalen aurka jokatuko du 5. multzoko 6. jardunaldiko norgehiagoka.

**Non:** Artaleku kiroldegia.

**Ordua:** 19:00.

## 28a

### Zure abenturaren bila

**Zer:** Begoña Garcia Hugo Alfonsoren eskutik "Pedaleando por emiratos y sultanatos".

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:30ean.

**Prezioa:** Doan.

## 29a

### Kontzertua

**Zer:** Ainara LeGardonek "Res-cue. The archive in the mouth" aurkezpenen ondoren, hausnarketa eta berrinterpretazio lanaren bilakaera naturala eskaintzen du zuzenean.

**Non:** Oiasso Erromatar Museoan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrera:** Doan, gonbidapenarekin.

## 30a

### Dantza klasikoa

**Zer:** Dantza klasikoko akademiek hainbat barra-ariketa egingo dituzte, adin guztietako dantzarien eskutik.

**Non:** Dunboako kanalean.

**Ordua:** 12:00etan.

**Parte-hartzaileak:** Miren Gomez Studio Danza, Junkal Akademia, Etxebeste Akademia, Irungo Udal Kontserbatorioko Dantza Akademia eta 22 Academy.

## 30a

### 18.95 Festa Zineman

**Zer:** Flasdance eta Saturday Night Fever filmen emankizuna jatorrizko hizkuntzan.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 18:00etan.

**Prezioa:** 5,50 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

## Denbora-pasen emaitzak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 5 | 3 | 7 | 2 | 6 | 4 | 9 | 1 |
| 9 | 7 | 1 | 5 | 4 | 3 | 6 | 8 | 2 |
| 2 | 4 | 6 | 8 | 9 | 1 | 7 | 3 | 5 |
| 4 | 9 | 8 | 3 | 6 | 5 | 2 | 1 | 7 |
| 3 | 6 | 2 | 1 | 7 | 4 | 9 | 5 | 8 |
| 7 | 1 | 5 | 2 | 8 | 9 | 3 | 6 | 4 |
| 5 | 2 | 9 | 4 | 3 | 8 | 1 | 7 | 6 |
| 6 | 8 | 4 | 9 | 1 | 7 | 5 | 2 | 3 |
| 1 | 3 | 7 | 6 | 5 | 2 | 8 | 4 | 9 |

# Espazio atsegin eta paregabe batean bizi nahi duzu?

## Erreforma integralak

Zure etxebizitzan edo enpresan aldaketak egiteko asmoa baduzu. Hamaikan lagun zaitzakegu.

## Km0

Konfiantzazko tokiko hornitzaileekin lan egiten dugu. Kalitatea eta zerbitzua emaitza perfektua lortzeko

## Bereizi zaitez

Dekorazio aspergarri bera izateaz nekatuta zaude? Kalitatezko altzariak eta dekorazioa eskaintzen ditugu.

## Profesionalak

Gremio bakoitzeko profesionalik onenekin lan egiten dugu. Erreformekin sufritzea amaitu da

HAMAIKA

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com